AIZMENDIKO HONDAKIN INERTE ETA EZ-ARRISKUTSUETARAKO ZABORTEGIAREN USTIAPENA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

I. TITULUA. ALDERDI OROKORRAK

1. 1.- XEDEA

Agiri honen xedea hainbat baldintza tekniko adieraztea da. Izan ere, horiek oinarritzat hartuko dira Aizmendiko zabortegiaren zerbitzua kontratatzeko.

Ustiapena ondorengoei zorrozki erreparatuz gauzatuko da: baldintza teknikoen agiriari, Ingurumen Sailburuordearen 2015eko uztailaren 1eko Ebazpenari, Aizmendiko hondakin inerte eta ez-arriskutsuetarako zabortegiaren jarduerarako ingurumen-baimen integratua aldatu eta eraginkor bihurtzen duenari, eta lehiaketaren xede den zerbitzuaren esleipen-kontratuaren bidez zehazten denari.

Aipatu ebazpena Baldintza Teknikoen Agirian Eranskin bezala ageri da.

2. 2.- ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Esleipendunak eskaini behar dituen zerbitzuak ondoren zehaztutakoak dira:

2.1 Agregakin birziklatu bezala kanpoan erabiltzeko eraikuntza- eta eraispen-hondakinak biltegiratu, txikitu eta sailkatzea (R5 kudeaketa-eragiketa)

Biltegiratu, txikitu eta sailkatzeko plantan hondakin onargarriak hurrengo taulan adierazitakoak dira:

Hondakin-mota	LER kodea
Hormigoia	**17 01 01**
Adreiluak	**17 01 02**
Teilak eta zeramikazko materialak	**17 01 03**
Hormigoi, adreilu, teila eta zeramikazko materialen nahasteak, 17 01 06 kodean zehaztutakoekiko desberdinak	**17 01 07**

2.2 Ondoren kanpoan balioztatzeko, zenbait hondakin ez-arriskutsu hartu, sailkatu eta biltegiratzea (R13 kudeaketa-eragiketa)

Sailkatu eta biltegiratzeko plantan hondakin onargarriak hurrengo taulan zehazten dira:

Hondakin-mota	LER kodea
Plastikozko hondakinak (bilgarriak izan ezik)	**02 01 04**
Plastikozko hondakinak	**07 02 13**
Plastikoa	**16 01 19**
Beira	**16 01 20**
Beira	**17 02 02**

Hondakin-mota	LER kodea
Plastikoa	**17 02 03**

2.3 <u>Deuseztatzeko hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan bota beharreko hondakinak (D5 kudeaketa-eragiketa)</u>

Plantan ez dira inolaz ere onartuko R5 eta R13 kudeaketa-eragiketetara bideratutako hondakinak.

Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan onartuko diren hondakinak Aizmendiko zabortegirako Ingurumen Baimen Integratuak **Ia, I.b, I.c eta I.d** Eranskinetan zehazten ditu eta Onarpen Agiria izan beharko dute.

Ondorengo baldintzetan ez dira inolaz hondakinak onartuko:

- 50 gradu zentigradotik gorako tenperatura duten hondakinak.
- % 65etik gorako hezetasuna duten hondakinak.

2.4 <u>Kokagunearen egoera ikuskatzea, zaintza eta mantentze-lan prebentiboa nahiz zuzentzailea.</u>

Atal honetan zenbait zerbitzu sartzen dira eta “deskribapen nahiz baldintza teknikoen” atalean zehazten dira: baskula, inguruko itxitura, etab.

3. INSTALAZIOA MOLDATZEKO JARDUERAK

Lehiaketaren esleipendunak, halabeharrez, kontratuaren lehenengo hiru hilabeteetan hurrengo hobekuntza-jarduerak burutu beharko ditu zabortegiaren instalazioetan:

A. **Zabortegia oso-osorik ixtea.** Esleipendunak zabortegian behin betiko hesiak oso-osorik jartzeari ekin beharko dio. Horrez gain, egun hesiak dituzten guneak konpondu beharko ditu, kaltetuak badaude.

Jardueran honakoak egingo dira: sastrakak kentzea inguruko hesiaren zonan, dagoen itxitura desegitea eta ondoren kudeatzea, baita itxituraz hornitu eta hori jartzea ere. Itxiturak metalezko zurtoinak, 48 mm-ko diametrokoak eta 1,5 mm-ko lodierakoak izango ditu; horrez gain, 50/16 tortsio sinpleko sare galvanizatua eta plastifikatua, RAL-6005 berdea, 2 m-ko altuerakoa, ageriko da. Zimenduen zati proportzionala ere sartuko da, HM-20 hormigoizko laukiekin, 3 m linealeko 0,4x0,4x0,4 m-ko ainguraketak egiteko, baita 30 m linealeko sendotze zentroak ere. Guztia jarria eta tenkatua egongo da.

Kalkulatzeko itxitura guztia ordezkatzea aurrez ikusi beharko da eta mugarriei doitzea ere bai. Luzera 1.572 m-koa da.

Esleipendunak gauzatutako hesien tartea eta egun zabortegian dagoena mantendu beharko ditu kontratuaren bizi guztian zehar.

B. Mendebaldeko inguruko kanala: kanalaren zona batzuk (batez ere, gurpilak garbitzeko zona berritik hurbil) lurrez estaliak daude eta drainatzeko gaitasuna murriztuta dago. Nolanahi ere, lurrez betetzen dira, tarte horietan kanalak aldapa gutxi baitu. Lurra metatzen denean, drainatzeko gaitasuna murrizten da eta, gainera, horiek kutxatilen eta hodien barrualderantz arrastatzen dira. Hala, tapoiak sortzeko arriskua dago. Gainazaleko urei dagokien drainatze-sarearen sistema osoa garbitu beharko da.

C. Mendebaldeko inguruko bide igarogaitza: mendebaldeko inguruko bidea landaretzaz estalia ageri da eta zoruak edozein ibilgailu-mota pasatzeko gaitasun eramailerik ez du euria egiten duenean. Are gehiago, eguraldia lehorra denean ere, ibilgailuen gurpilak markatuak gelditzen dira eta ura pilatzen da, beraz, igarotzea zaila suertatzen da. Zelaigunearen eta zoruaren ezaugarriak kontuan hartuta, bidea ez da edozein ibilgailu-motarekin ibiltzeko modukoa eta, ondorioz, mantentze-lan orokorrak ezin daitezke egin. Horrez gain, zabortegiko mendebaldean larrialdiko egoeratan jardutea oso zaila da. Esleipendunak bidea garbitu beharko du, baita beharrezkoa izanez gero, etorkizunean gune bigunak ez sortzeko zoruaren azpian drainatzeak instalatu ere. Azkenik, ibilgailu-mota guztiak igarotzeko zoru egokia jarriko du. Jarduera hau 900 m-ko luzeran zehar egin beharko da eta 4 m-ko zabalera izango du.

D. Zabortegiko aurreko ezponda helezina: bai zabortegiaren aurrealdean, bai mendebaldeko mendi-mazela naturalean landaretza ugari dago eta, ondorioz, zonako drainatze-elementuak ezin daitezke behar bezala mantendu, ezta bertako tximiniak neurtu edo, orokorrean, zabortegiko aurrealdearen eta oinaren kontrol egokia egin ere.

Zona zabortegiaren aurrealdean eta mendebaldeko mendi-mazelan, hain zuzen ere, gainazaleko uren drainatze-elementuak dauden horretan landaretza aloktonoz eta zuhaitzez erabat arindu beharko da. Jarduera guztira 15.400 m^2-ko azaleran gauzatuko da.

E. Zabortegiaren aurrealdean alboko drainatzeak: zabortegiaren aurrealdean, ezpondaren bi alboetan instalatuak dauden drainatze-elementuen egoera orokorra oso baldintza txarretan dago eta isurketa-uraren zati bat ezin daiteke jatorrizko ibarraren errekaraino behar bezala hustu. Horrengatik guztiarengatik isurketa-uraren zati bat zabortegiko lixibiatuen drainatze-sarean sar daiteke.

Drainatze-elementu guztiak irisgarriak direnean eta drainatze-elementu irekiak eta behin betikoak eraikitzeko obrak egiten ez diren bitartean, alboko drainatzeak moldatu beharko dira, beren funtzioa bete dezaten.

3. eranskinean C, D eta E puntuetan zehaztutako jardueren planoak erantsi dira.

F. Zabortegiaren oinarrian kondukzio elektriko prekarioaren trazadura egokitzea.

- **II. TITULUA. LEHIAKETAREN XEDE DEN ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA, BALDINTZA TEKNIKOAK, JARDUERA-IRIZPIDEAK ETA GAUZATZEKO MODUA**

Ondoren, egin beharreko lan nagusiak definitzen dira. Nolanahi ere, horiek lehiaketaren xede den zerbitzu bakoitzean bete behar diren minimoak dira eta eskaintzaileek eskaintzak egiteko oinarritzat hartuko dituzte.

Abian jartzen denetik, kontratista izango da Aizmendiko hondakin inerte eta ez-arriskutsuetarako zabortegiaren kudeatzaile bakarra eta bere kargura egongo da kontratuak dirauen bitartean. Ildo horri jarraiki, hurrengoei buruzko kostu guztiak bere gain hartuko ditu: mantentze-lanak eta zaharberritzeak; hornidurak, ura eta elektrizitatea barne; kontsumigarriak; zaintza, ABBAren aseguruei buruzko klausulan deskribatutako aseguruak, zergak, tasak, etab., horiek guztiak instalazioak sortzen baditu kontratu honen indarraldian.

Enpresa eskaintzaileari dagokio proposatutako zerbitzuak gauzatzeko sistemarik eraginkorrenak proposatzea. Zehatz-mehatz definituko dute zerbitzuen antolaketa-proiektua. Horretarako, hurrengo baldintzak kontuan hartu beharko dira:

1.- AGREGAKIN BIRZIKLATU BEZALA KANPOAN ERABIL DAITEZEN ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINAK BILTEGIRATU, TXIKITU ETA SAILKATZEKO ZERBITZUA (R5 kudeaketa-eragiketa)

1.

Agregakin birziklatu bezala kanpoan erabil daitezen eraikuntza- eta eraispen-hondakinak biltegiratu, txikitu eta sailkatzeko jarduera isurketa-gelaxka ohiaren gainazalean garatzen da.

Honako gune bereiziak ditu: tratatu baino lehen aldi batean biltegiratzeko zona, manipulatu eta txikitzeko gunea eta agregakin birziklatuak sailkatu nahiz metatzeko zona.

Agregakin birziklatuak biltegiratzeko zonak hesiak edo kateak ditu, hondakinak isurtzea debekatuta dagoela ohartarazteko eta espazioan aldenduak daude. Ahalik eta hauts eta igorpen lauso gutxienak sortzeko, ur-ihinztagailuak jarriak ageri dira.

Agregakin birziklatu bezala kanpoan erabil daitezen eraikuntza- eta eraispen-hondakinak biltegiratu, txikitu eta sailkatzeko zerbitzua astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, eskainiko da. Sartzeko kontrol-sistema eta baskulan pisatzeko sistema izango dira. Aurrekoari eutsiz, baskulan langileak atxikiko dira gutxienez aipatu ordutegia edo bere egunean San Markoko Mankomunitateak zehatz dezakeena betetzeko. Ibilgailuen sarrera-kontrola irudia eta matrikula grabatzeko sistemaz hornituko da eta Mankomunitateak online irisgarria izango du.

San Markoko Mankomunitateak ordutegia aldatzeko eskubidea gordetzen du eta ez da kalte-ordainerako edo kontratistari kostua ordaintzeko eskubiderik sortuko, baliabide erantsiak behar ez diren bitartean.

Biltegiratu, txikitu eta sailkatzeko plantan hondakin onargarriak hurrengo taulan zehaztutakoak dira:

Hondakin-mota	LER kodea
Hormigoia	**17 01 01**
Adreiluak	**17 01 02**
Teilak eta zeramikazko materialak	**17 01 03**
Hormigoi, adreilu, teila eta zeramikazko materialen nahasketak, 17 01 06 kodean zehaztuta ez badaude	**17 01 07**

Plantan ez da inolaz onartuko aipatutakoekiko kanpo gelditzen den hondakinik. Gauza bera gertatuko da hondakin onargarriekin, beste hondakin-mota orokor batzuen nahasketari eslei dakiokeen poluzioa badute.

Biltegiratzeko plantara iristen diren hondakin ez-arriskutsuak kontrolatu beharko dira, plantan onargarriak direla berma dadin. Kontrol hori onarpen-agirian zehaztutakoa egiaztatzean datza.

Hondakin ez-arriskutsuak onartu baino lehen, ekoizleak nahitaezko JKDa bidaliko du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Ingurumen Informaziorako Sistemaren (IKS eeM sistema) bitartez.

Esleipendunak une oro hondakinak onargarriak direla egiaztatuko du, lehenik eta behin, baskularen instalazioetan eta, ondoren, plantan bertan. Deskarga-puntuan zamaren barrualdea kanpoaldeko hondakin-mota berdinek osatzen dutela ziurtatuko da. Ildo horri eutsiz, barruan hondakin ez-onargarririk ez dela agertzen ziurtatuko da.

Bertan ziurtatu ostean, hondakinak oso-osorik edo zati batean hondakin ez-onargarriak izateagatik egiaztapena gainditzen ez duenean, zama guztia berehala hondakinaren ekoizleari itzuliko zaio eta kontratistak grafikoki dokumentatuta txostena egingo du. Horretan atzera botatzeko zehaztasunak emango dira eta atzera botatzen den unean bertan Mankomunitateari bidaliko zaio. Horrez gain, esleipendunak gorabeherei buruzko erregistroa inplementatuko du.

Modu berean arituko da ekoizlea edo garraiatzailea zabortegiaren instalazioetara orduz kanpo iristen denean edo zehazten diren deskargak egiteko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituenean.

Gune honetarako hondakin onargarriekin kargatuak dauden kamioiek edota ibilgailuek balioa emateko eraikuntza- eta eraispen-hondakinetara bideratutako zonan deskargatuko dute bereizita LER kodearen arabera.

Plantan hondakinen zamalan- eta manipulazio-eragiketek igorpen lausoak edo kontrolik gabekoak saihestu edo, hori izan ezean, gehienean murriztuko dituzte.

Hauts-materialak arrastatzea minimizatuko da eta, xede horrez, neurri orokorrak aplikatuko dira, hala nola haizeak gogor jotzen duenean hauts-solidoen manipulazioa saihestea eta paletatik materialen deskarga-altuera mugatzea.

Kontratistak gunea ordena- eta garbitasun-egoera ezin hobean mantendu beharko du eta hondakinak behar bezala sailkatuak daudela ziurtatuko du.

Kilogramotan 2014., 2015, 2016 eta 2017 urteetan kudeatutako kopuruak honakoak izan dira:

Hondakin-mota	LER kodea	***2014***	***2015***	***2016***	***2017 (*)***
Hormigoia	**17 01 01**	947.080	465.340	158.540	28.960
Adreiluak	**17 01 02**	0	4.320	6.780	3.700
Teilak eta zeramikazko materialak	**17 01 03**	81.920	50.340	130.980	70.280
Hormigoi, adreilu, teila eta zeramikazko materialen nahasketak, 17 01 06 kodean zehaztuta ez badaude	**17 01 07**	20.286.160	23.227.020	18.783.880	791.760

(*) Urtarril-martxoa

Gaur egun hurrengo makineria nagusia dago zerbitzua burutzeko: CATERPILLAR 953-C kate-zamagailua. Kontratua sinatzen denetik hogeita lau (24) hilabeteko epean ordezkatzea aurrez ikusia dago. Berria San Markoko Mankomunitateak erosiko du eta eskaintzaileak bere eskaintzan beharrezkotzat jotzen duen ekipoa proposa eta zehatz dezake. Dena den, Mankomunitatea ez da inolaz ere eskaintzaileak proposatutako ekipoa erostera behartua egongo. Aurrekoaren harira, zerbitzua eskaintzeko nahikoak eta beharrezkoak erosiko ditu. Makineria ordezkatu arte, esleipendunak dagoen makineriaren matxura mota guztien kostua bere gain hartu beharko du.

Eskaintzaileak agregakin birziklatu bezala kanpoan erabil daitezen eraikuntza- eta eraispen-hondakinak (EEH) biltegiratu, txikitu eta sailkatzeko zerbitzua bete dezan giza baliabideak eta bitarteko materialak eskuratu beharko ditu. Halaber, horiek instalazioen funtzionamendu zuzena ziurtatu beharko dute. Horrez gain, esleipendunaren betebeharren artean lizitazioaren xede den kontratuaren data hasi arte biltegiratutako EEHak prestatu, txikitu eta sailkatzea egongo da. Mankomunitateak lizitatzaileak eskainitako tonako prezioan honako kontzeptu hauek guztiak sartuak egotea aurrez ikusten du: ekipoak lekualdatzea, planta mugikorra muntatu eta desmuntatzea, balioa duten agregakinekin zamalanak eta horien garraioa.

Eskaintzaileak eskuratzen duen planta mugikor baimenduak, betiere eskura dauden teknika onenak (ETO) erabiliz, nahitaez bi etapatan aldez aurretik bahetzeko gailu independentea izango du. Hala, materiala bi zatitan bereiziko du. Goiko baheak bi etapez hornitutako parrila eta 40 mm-ko irekidura izango ditu. Beheko bahean, berriz, irekidura 25 mm-koa izango da.

Mankomunitateak lehentasunez eskaintzaileak proposatutakoarekiko beste planta mugikor bat aukeratzeko eskubidea gordetzen du eta ez da kalte-ordainerako edo kontratistari kostua ordaintzeko eskubiderik izango.

Kontratistak mantentze-lanen plana erregistratzeko eredua aurkeztuko du eta zehatz-mehatz islatuko dira makinerian egindako azterketak, baita ordezkapenak eta konponketak ere.

EEHei balioa ematea

Lortzen diren agregakin birziklatuekin San Markoko Mankomunitateak nahitaezko saiakuntzak egingo ditu, ingurumen-baldintzak eta baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatzeko eta, bidez batez, baimendutako erabilerak izan ditzaketela ziurtatzeko.

Eskaintzaileak lotuak ez dauden aplikazioetarako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) agregakin birziklatuak ateratzeko eskaintza loteslea aurkeztu beharko du.

Lortutako agregakin birziklatuek indarreko legeria aplikagarrian xedatzen diren ingurumen saiakuntzak nahiz teknikoak gainditzen ez badituzte, esleipendunak bere gain hartu beharko ditu hondakina kudeatzearen inguruko kostuak, Aizmendiko hondakin ez-arriskutsuen gelaxkan indarrean dauden tasen arabera edota lotutako aplikazioetarako erabilera bermatu beharko du.

Hondar mineralaren zatia (errefusa) zabortegian bertan kudeatuko da (19 12 09 LER kodea), isurketa-gunean barneko pistak moldatzeko eta ustiatzen ari den gelaxka estaltzeko material bezala.

Instalazioetan tipologien arabera sortutako agregakinen bolumen metatuak ezingo du inoiz hondakin-mota desberdinen irteerari dagokion logistika optimizatzeko zorrozki beharrekoa dena gainditu. Kontratistak, balioa ematera bideratuta, hondakinen irteera-fluxu etengabea ziurtatuko du. Xede horrez, ezinbestekoa da balioa ematera bideratutako hondakin-korronte bakoitzerako proposatzen den kudeaketa-eredua aurkeztea. Eredua etengabe eguneratuko da, Mankomunitateak hilero balioa izan dezaketen hondakinen kudeaketari buruzko informazioa izateko, horiek Aizmendiko zabortegiko instalazioetatik ateratzen badira.

Era berean, kontratistak, hala baleude, hondakin-tipologia bakoitzerako hartu behar diren neurri bereziak zehaztuko ditu.

Halaber, merkaturatutako agregakin birziklatuen erregistroa (kopurua eta jomuga) mantenduko da, baita zabortegira joango den errefusaren kopurua plantan ere eta zehaztu gabe dagoen produktuaren kopurua nahiz jomuga.

Kalkulu ekonomikorako tonen kopurua, beren eskaintza ekonomikoan (C gutun-azala) eskaintzaile guztiek erabiliko dutena, 12.000 tonakoa da.

Kontratistak eskuratu beharreko informazioa

Kontratistak San Markoko Mankomunitateari hurrengo informazioa bidali beharko dio euskarri informatikoan adierazitako aldizkakotasunarekin.

Txosten bakoitzaren edukiak San Markoko Mankomunitateak edozein unetan alda ditzake.

Formatu telematikoan fitxategi kronologikoa izan beharko da eta ordena kronologikoari jarraiki, ondorengoak azalduko dira: hondakinen kopurua, izaera, jatorria, jomuga eta tratamenduaren metodoa eta, bidezkoa denean, garraio-bitartekoa eta onartu nahiz kudeatutako hondakinen bilketa-maiztasuna inskribatuko dira. Bien bitartean, atzera botatako hondakinei buruz hurrengoak jasoko dira: kopurua, atzera bota den hondakinaren enpresa ekoizlea, atzera botatzeko arrazoia, atzera botatako hondakinaren azken jomuga eta bestelako gorabeherak. Fitxategi kronologikoan hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-eragiketen dokumentuzko ziurtapenean dagoen informazioa erantsiko da.

Era berean, erregistro bat izango da, kudeatutako hondakinen jomuga eta kopurua zehazteko eta kudeaketa-bidea espezifikatuko da.

a) Hileko txostena

Kontratistak San Markoko Mankomunitateari hilabete bakoitzaren lehenengo 5 egunetan txosten bat aurkeztu beharko dio eta aurreko hilabetean eskainitako zerbitzuen zerrenda izango du, gutxienez honako datuekin:

- Balioa izan dezaketen EEHak garraiatzeko hilean egindako bidaiak: eguna, ordua eta ibilgailua adieraziko dira.
- Kontratuaren hasieratik onartutako hileko kopuruen laburpen-koadroa.
- Atxikitako langileak eta bitartekoak.
- Instalazioetan nahiz ekipoetan egindako mantentze-lanak eta hurrengo hilabeterako aurreikuspena.
- Zerbitzua eskaintzen ari den bitartean egunero sortutako gorabeherak eta anomaliak. Arrazoiak azalduko dira.

b) Urteko txostena (inbentarioa)

Urte bakoitzaren urtarrilean aurreko urtean zerbitzua eskaintzeari buruzko laburpena entregatuko da eta hurrengoak adieraziko dira:

- Instalazioan kudeatutako kopuruen laburpena, bai sarrerak, bai irteerak. Horrez gain, horiei buruzko informazioa azalduko da.
- Hilero egindako bidaien laburpena. Garraiatutako kopuruak eta jomuga adieraziko dira.
- Atxikitako langileak eta bitartekoak.
- Egindako mantentze-lanen eta instalazioaren egoeraren alderdirik aipagarrienak.
- Zerbitzua eskaintzean gertatutako gorabeherak eta anomaliak.
- Zerbitzua behar bezala eskaintzeko iradokizunak.

2.- ONDOREN KANPOAN BALIOA EMATEKO HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN HARRERA, SAILKAPEN ETA BILTEGIRATZEAREN ZERBITZUA (R13 kudeaketa-eragiketa)

2.

Hondakin ez-arriskutsuen harrera-, sailkapen- eta biltegiratze-jarduera isurketa-gelaxka ohiaren gainazalean garatzen da, eraikuntza- eta eraispen-hondakinei balioa emateko instalazioaren ondoan.

Sailkatzeko eta biltegiratzeko plantan hondakin onargarriak ondorengo taulan zehazten dira:

Hondakin-mota	***LER kodea***
Plastikozko hondakinak (bilgarriak izan ezik)	***02 01 04***
Plastikozko hondakinak	***07 02 13***
Plastikoa	***16 01 19***
Beira	***16 01 20***
Beira	***17 02 02***
Plastikoa	***17 02 03***

Plantan ez da inolaz onartuko aipatutakoekiko kanpo gelditzen den hondakinik. Gauza bera gertatuko da hondakin onargarriekin, beste hondakin-mota orokor batzuen nahasketari eslei dakiokeen poluzioa badute.

Hondakin ez-arriskutsuak hartu, sailkatu eta biltegiratzeko jarduera astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara, eskainiko da. Sartzeko kontrol-sistema eta baskulan pisatzeko sistema izango dira. Aurrekoari eutsiz, baskulan langileak atxikiko dira gutxienez aipatu ordutegia edo bere egunean San Markoko Mankomunitateak zehatz dezakeena betetzeko. Ibilgailuen sarrera-kontrola irudia eta matrikula grabatzeko sistemaz hornituko da eta Mankomunitateak online irisgarria izango du.

San Markoko Mankomunitateak ordutegia aldatzeko eskubidea gordetzen du eta ez da kalte-ordainerako edo kontratistari kostua ordaintzeko eskubiderik sortuko, baliabide erantsiak behar ez diren bitartean.

Eskaintzaileak hondakin ez-arriskutsuen harrera-, sailkapen- eta biltegiratze-jardueraren zerbitzua betetzeko eta instalazioen funtzionamendu zuzena ziurtatzeko giza baliabideak eta bitarteko materialak jarri beharko ditu.

Biltegira daitezen plantara iristen diren hondakin ez-arriskutsuak kontrolatu beharko dira, plantan onargarriak direla bermatzeko. Kontrola onarpen-agirian zehaztutakoa egiaztatzean datza.

Hondakin ez-arriskutsuak onartu baino lehen, ekoizleak nahitaezko JKDa bidaliko du Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Ingurumen Informaziorako Sistemaren (IKS eeM sistema) bitartez.

Esleipendunak une oro hondakinak onargarriak direla egiaztatuko du, lehenik eta behin, baskularen instalazioetan eta, ondoren, plantan bertan. Deskarga-puntuan zamaren barrualdea kanpoaldeko hondakin-mota berdinek osatzen dutela ziurtatuko da. Ildo horri eutsiz, barruan hondakin ez-onargarririk ez dela agertzen ziurtatuko da.

Bertan ziurtatu ostean, hondakinak oso-osorik edo zati batean hondakin ez-onargarriak izateagatik egiaztapena gainditzen ez duenean, zama guztia berehala hondakinaren ekoizleari itzuliko zaio eta kontratistak grafikoki dokumentatuta txostena egingo du. Horretan atzera botatzeko zehaztasunak emango dira eta atzera botatzen den unean bertan Mankomunitateari bidaliko zaio. Horrez gain, esleipendunak gorabeherei buruzko erregistroa inplementatuko du.

Modu berean arituko da ekoizlea edo garraiatzailea zabortegiaren instalazioetara orduz kanpo iristen denean edo zehazten diren deskargak egiteko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituenean.

Gune honetan onargarriak diren hondakinekin kargatutako kamioiek edota ibilgailuek plastikozko hondakinetara bideratutako zonan deskargatuko dute eta beira lauaren nahiz autobeiraren hondakinei dagokienez, 30 m^3-ko edukiontzietan deskargatuko dituzte. Xede horrez, sartzeko baskularen ondoan jarriak daude.

Plastikozko hondakinak plastiko-motaren (PEAD, PEBD, PVC, PS, PP...) arabera sailkatuko dira eta aldi batean bereizita biltegiratuko dira. Azkeneko kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatuko dira eta lehentasunezko aukera izango da materiala birziklatzea.

Beira lauaren hondakinak aldi batean biltegiratuko dira eta azkeneko kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatuko dira. Nolanahi ere, lehentasunezko aukera birziklatzea da. Halabeharrez, aldez aurretik bereizteko gunean xede horretarako jarria dagoen edukiontzian bota beharko da. Ildo horri eutsiz, bakarrik beira laua onartuko da, bestelako hondakinik gabe. Autoetako beira eta tximinietatik, labeetatik edo bitrozeramiketatik datorren beira ez dira onartuko. Halaber, ez dira onartuko egurrezko markoak, metalezko markoak edota plastikozkoak, beira lauarekin batera badoaz.

Autoetako beiraren hondakinak aldi batean biltegiratuko dira eta azkeneko kudeatzaile baimenduaren bidez kudeatuko dira. Lehentasunezko aukera birziklatzea izango da.

Kilogramotan 2014., 2015. 2016. eta 2017. urteetan honako kopuruak kudeatu ziren:

Hondakin-mota	***LER kodea***	***2014***	***2015***	***2016***	***2017 (*)***
Plastikozko hondakinak (bilgarriak izan ezik)	***02 01 04***	1.440	3.900	1.300	0
Plastikozko hondakinak	***07 02 13***	156.080	330.310	171.540	13.180
Plastikoa	***16 01 19***	1.000	3.400	1.180	0
Beira	***16 01 20***	5.540	12.960	15.760	4.840
Beira	***17 02 02***	207.060	261.140	264.520	45.080
Plastikoa	***17 02 03***	573.720	1.035.400	404.120	7.800

(*) Urtarril-martxoa

Egun prozesu desberdinak gauzatzeko zerbitzuan honako makineria nagusia eta ekipoak daude: CATERPILLAR TH-62 manipulatzaile teleskopikoa eta 22 m^3-ko 10 edukiontzi. Esleipendunak edukiera bereko beste 6 eranstea beharrezkoa da.

Kontratua sinatzen denetik hogeita lau (24) hilabeteren buruan CATERPILLAR TH-62 manipulatzaile teleskopikoa ordezkatzea aurrez ikusia dago. Erosketa San Markoko Mankomunitateak egingo du, baina lizitatzaileak bere eskaintzan beharrezkotzat jotzen duen ekipoa proposa eta zehatz dezake. Mankomunitateak ez ditu inolaz ere eskaintzaileak proposatutako ekipoak nahitaez erosi behar, zerbitzua eskaintzeko nahikotzat eta beharrezkotzat jotzen dituenak baizik. Makineria ordezkatu arte, esleipendunak dagoen makineriaren matxura mota guztiak bere gain hartu beharko ditu.

Esleipendunak eskuratutako 6 edukiontziak Mankomunitatearen jabetzakoak izatera pasako dira kontratua amaitzen denean.

Kontratistak mantentze-lanari buruzko plana erregistratzeko eredua aurkeztu beharko du eta horretan zehatz-mehatz ageriko dira makineriari egindako azterketak nahiz ordezkapenak eta konponketak.

Kontratistak gunea ordena- eta garbitasun-egoera ezin hobean mantenduko du eta hondakinak behar bezala sailkatuak daudela ziurtatuko du. Kudeatzaile baimenduarekin koordinatuko du horiek eramatea.

Hondakinen balioztapen ekonomikoa

Instalazioetan bolumen metatuak ezingo du inoiz hondakin-mota desberdinen irtete-logistika optimizatzeko zorrozki behar dena gainditu. Kontratistak balioa ematera bideratutako hondakinen irteera-fluxu etengabea ziurtatu beharko du. Xede horrez, balioa emateko bideratzen den hondakinen korronte bakoitzari dagokionez, proposatzen duen kudeaketa-eredua aurkeztu beharko du. Eredua etengabe eguneratuko da, une oro Mankomunitateak Aizmendiko zabortegiaren instalazioetan balioa izan dezaketen hondakinen kudeaketa zehatz-mehatz ezagut dezan.

Era berean, kontratistak hartu behar diren neurri bereziak zehaztuko ditu, hala baleude, hondakin-tipologia bakoitzari buruz.

Atal honetan aipatutako hondakin guztiei balioa ematearen inguruan, ingurumen jomuga egokiaz erantzukizuna izateaz gain, eskaintzaileak fluxu ekonomikoei atxikitako arrisku guztiak bere gain hartuko ditu, kudeatzea erabakitzen den erakundearen aldetik izan daitezkeen ez-ordaintzeak eta kalitateen erreklamazioak barne. Eskaintzaileak hondakinaren kudeatzaile hartzailearekiko askatasuna izango du, betiere LER kode horri balioa emateko baimena badu. Xede horrez baimenen kopiak erantsiko dira eta argi eta garbi zehaztuko da horietan irismena (LER kodea eta tratamendu eragiketa). Mankomunitatea materialari balio guztia eman arte kontratistak zehaztutako eragileek indarreko legezkotasuna, baimenak barne, betetzen dutela kontrolatzera mugatuko da.

Egindako kudeaketa egiaztatzeko, LER bakoitzari balioa emateko onarpen agirien bidez kudeatzailearen baimenak aurkeztuko dira.

a) Plastikozko hondakinak (LER 02 01 04, LER 07 02 13 eta LER 17 02 03)

Atal honen barruan, kontratistaren erantzukizuna plastiko mota hauei balioa emateko kudeatzailea bilatzea da: PEAD, PEBD, PVC, PP, PS; horiek udal-bilketetatik edo erabiltzaile partikularretatik badatoz. Instalazioetan bolumen metatuak ezingo du inoiz hondakin mota irteteko logistika optimizatzearen ikuspegitik zorrozki beharrezkoa dena gainditu. Plastikozko hondakin tipologia bakoitzaren kudeaketarekin eskaintzaileak espero duen kostua edo diru-sarrera zehatz-mehatz adieraziko da eskaintza ekonomikoan, administrazio-agirietan sartzen den ereduaren arabera eta loteslea izango da.

Kalkulu ekonomikorako eskaintzaile guztiek beren eskaintza ekonomikoan (C gutun-azala) erabiliko duten kopurua 600 tonakoa izango da.

Beira lauaren hondakinak (LER 17 02 02)

Atal honen barruan, kontratistaren erantzukizuna da udal-bilketetatik eta erabiltzaile partikularretatik datorren beira lauari balioa emateko kudeatzaile baimendua bilatzea da. Instalazioetan bolumen metatuak ezingo du inoiz hondakin mota irteteko logistika optimizatzearen ikuspegitik zorrozki beharrezkoa dena gainditu. Plastikozko hondakin tipologia bakoitzaren kudeaketarekin eskaintzaileak espero duen kostua edo diru-sarrera zehatz-mehatz adieraziko da eskaintza ekonomikoan, administrazio-agirietan sartzen den ereduaren arabera eta loteslea izango da.

Kalkulu ekonomikorako eskaintzaile guztiek beren eskaintza ekonomikoan (C gutun-azala) erabiliko duten kopurua 300 tonakoa izango da.

Beirazko hondakinak (autoetako beira) (LER 16 01 20)

Atal honen barruan, kontratistaren erantzukizuna da erabiltzaile partikularretatik datozen autoetako beirei balioa emateko kudeatzaile baimendua bilatzea da. Instalazioetan bolumen metatuak ezingo du inoiz hondakin mota irteteko logistika optimizatzearen ikuspegitik zorrozki beharrezkoa dena gainditu. Plastikozko hondakin tipologia bakoitzaren kudeaketarekin eskaintzaileak espero duen kostua edo diru-sarrera zehatz-mehatz adieraziko da eskaintza ekonomikoan, administrazio-agirietan sartzen den ereduaren arabera eta loteslea izango da.

Kalkulu ekonomikorako eskaintzaile guztiek beren eskaintza ekonomikoan (C gutun-azala) erabiliko duten kopurua 15 tonakoa izango da.

Kontratistak eskuratu beharreko informazioa

Kontratistak San Markoko Mankomunitateari hurrengo informazioa bidaliko dio euskarri informatikoan adierazitako aldizkakotasunarekin.

Txosten bakoitzaren edukiak edozein unetan San Markoko Mankomunitateak alda ditzake.

Formatu telematikoan fitxategi kronologikoa izan beharko da eta ordena kronologikoari jarraiki, ondorengoak azalduko dira: hondakinen kopurua, izaera, jatorria, jomuga eta tratamenduaren metodoa eta, bidezkoa denean, garraio-bitartekoa eta onartu nahiz kudeatutako hondakinen bilketa-maiztasuna inskribatuko dira. Bien bitartean, atzera botatako hondakinei buruz hurrengoak jasoko dira: kopurua, atzera bota den hondakinaren enpresa ekoizlea, atzera botatzeko arrazoia, atzera botatako hondakinaren azken jomuga eta bestelako gorabeherak. Fitxategi kronologikoan hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-eragiketen dokumentuzko ziurtapenean dagoen informazioa erantsiko da.

Era berean, erregistro bat izango da, kudeatutako hondakinen jomuga eta kopurua zehazteko eta kudeaketa-bidea espezifikatuko da.

a) Hileko txostena

Kontratistak San Markoko Mankomunitateari hilabete bakoitzaren lehenengo 5 egunetan txosten bat aurkeztu beharko dio eta aurreko hilabetean eskainitako zerbitzuen zerrenda izango du, gutxienez honako datuekin:

- Balioa izan dezaketen hondakinak (plastikoak, beira laua eta autoetako beira) garraiatzeko hilean egindako bidaiak. Eguna, ordua nahiz ibilgailua adieraziko dira eta tratamendu-zentroan sarreren pisuei buruzko frogagirien zerrenda erantsiko da. Frogagiriak Mankomunitatearen esku egongo dira.

- Kontratuaren hasieratik hilean garraiatutako kopuruen laburpen-koadroa.

- Atxikitako langileak eta bitartekoak.

- Instalazioetan nahiz ekipoetan egindako mantentze-lanak eta hurrengo hilabeterako aurreikuspena.

–Zerbitzua eskaintzen ari den bitartean egunero sortutako gorabeherak eta anomaliak. Arrazoiak azalduko dira.

b) Urteko txostena (inbentarioa)

Urte bakoitzaren urtarrilean aurreko urtean zerbitzua eskaintzeari buruzko laburpena entregatuko da eta hurrengoak adieraziko dira:

–Instalazioan kudeatutako kopuruen laburpena, bai sarrerak, bai irteerak. Horrez gain, horiei buruzko informazioa azalduko da.

–Hilero egindako bidaien laburpena. Garraiatutako kopuruak eta jomuga adieraziko dira.

–Atxikitako langileak eta bitartekoak.

–Egindako mantentze-lanen eta instalazioaren egoeraren alderdirik aipagarrienak.

–Zerbitzua eskaintzean gertatutako gorabeherak eta anomaliak.

–Zerbitzua behar bezala eskaintzeko iradokizunak.

3. 3.- HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUETARAKO (HEA) GELAXKA KUDEATZEKO ZERBITZUA

Kontratistak hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxka kudeatu beharko du eta HEAren gelaxkaren egiazko kontrolaz, baita isurketez ere arduratuko da. Hondakinak pisatu eta kontrolatu beharko dira, San Markoko Mankomunitateak baimenduak dituen erabiltzaileen zerrendan identifikatuz eta horiekin alderatuz. Ildo horri eutsiz, bakarrik erakunde horrek baimen dezake hondakinak isurtzea eta, horretarako, nahitaezko onarpen-agiria burutuko du. Kontratistak debekatuta du isurketak egin edo baimentzea, San Markoko Mankomunitateak aldez aurretik berariaz eta idatziz onartu gabe.

Hondakin ez-arriskutsuen gelaxkan hondakin onargarriak Aizmendiko zabortegirako Ingurumen Baimen Integratuak **Ia, I.b, I.c eta I.d** eranskinetan aipatzen ditu eta, gainera, onarpen-agiriz hornituak egongo dira.

Ez dira plantan inolaz ere onartuko R5 eta R13 kudeaketa-eragiketetara bideratutako hondakinak.

2015., 2016. eta 2017. urteetan (urtarril-martxoa) urteetan 6.041 tona, 4.162 tona eta 479 tona isuri dira, hurrenez hurren. Desbideratu behar diren kopuruen aurreikuspenak aldaketak izan ditzake gorantz, baita beherantz ere. % 20tik gorako aldaketa positiboek edo negatiboek bitartekoak eta atxikitako kostuak berriz aztertzea eragingo dute eta, horretarako, une bakoitzean indarrean dagoen legeriak zehaztutakoari erreparatuko zaio. Aldaketa horien zenbaketatik kanpo gelditzen dira agregakin birziklatuak, ingurumen saiakuntzak edo saiakuntza teknikoak gainditu ez badituzte. Gauza bera gertatuko da hondar mineralaren (errefusa) zatiarekin, EEHak tratatzearen ondorioz.

Hondar mineralen zatia gaituta dagoen isurketa-gunean barneko pistak moldatzeko erabiliko da, baita ustiapenean dagoen gelaxka estaltzeko ere.

Ustiatzeko moduari dagokionez, hondakinak “gelaxkan” isuri, zabaldu eta trinkotuko dira. Nolanahi ere, gelaxkak hedapenean mugatuak egongo dira eta, ondoren, hondakinak berak

hautatuta estaliko dira. Kasu batzuetan lurrak izan daitezke eta besteetan eraikuntza-material finagoak edo txikituak. Horiek kamioiak eta makineria astuna igarotzeko baliagarriak izango dira.

Esleipendunak ezingo du inolaz ere horiek ordezkatzen dituzten estaldura-materialen (besteak beste, lurrak) sarrera baimendu eta Mankomunitatearen berariazko baimena ezinbestekoa izango da. Xede horrez, aldez aurretik eskaera dokumentatua egitea nahitaezkoa da. Gaur egun lur-kabailoiaren modura metaketak daude estaldura eskatzen duten lanetarako. Halaber, hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkaren ondoan, geosintetiko desberdinak instalatu baino lehen kendu diren materialak ageri dira eta estaldura-materialaren modura erabil daitezke.

Gaur egun zerbitzua gauzatzeko makineria nagusia ondorengoa da: CATERPILLAR 953-C kate-zamagailua. Hori, gainera, EEHak biltegiratu, txikitu eta sailkatzeko zerbitzuan erabiltzen da.

Hondakin ez-arriskutsuen gelaxka kudeatzeko orduan, bakarrik San Markoko Mankomunitateak emandako adierazpenei eta egindako eskeei erreparatuko zaie. Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkara iristen diren hondakin ez-arriskutsuak kontrolatu beharko dira, onargarriak direla bermatzeko. Kontrolatzeko, onarpen-agiriko egiaztapena burutuko da. Ibilgailuen sarrerak kontrolatzeko, berriz, irudiak eta matrikulak grabatuko dira eta Mankomunitateak online eskuratzeko aukera izango du.

Hondakin ez-arriskutsuak onartu baino lehen, ekoizleak nahitaezko JKA bidali beharko du Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Politika Sailaren Informazioaren Kudeaketa Sistema (IKS eeM sistema) erabiliz.

Esleipendunak une oro hondakinak onargarriak direla egiaztatuko du, lehenik eta behin, baskularen instalazioetan eta, ondoren, gelaxkan bertan. Deskarga-puntuan zamaren barrualdea kanpoaldearen hondakin-mota berak osatzen duela egiaztatuko da. Halaber, barrualdean hondakin ez-onargarririk ez dagoela ziurtatuko da.

Hondakinak bertan egiaztapena gainditzen ez duenean, hondakinaren zamak zati batean edo oso-osorik hondakin ez-onargarriak dituelako, berehala zama guztia hondakinen ekoizleari itzuliko zaio. Halakoetan, kontratistak grafikoki dokumentatutako txostena gauzatuko du eta atzera bota izana zehaztuko du. Mankomunitateari atzera botatzen den unean bertan jakinaraziko zaio. Horrez, gain, esleipendunak gorabeheren erregistroa inplementatu beharko du.

Modu berean arituko da, ekoizlea edo garraiolaria zabortegiaren instalazioetara orduz kanpo iristen denean edo zehazten diren deskargetarako gutxieneko baldintzak betetzen ez dituenean.

Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxka astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara, irekia egongo da. Sarrerak kontrolatzeko sistema eta baskulan pisatze-sistema izango dira. Aurrekoaren harira, baskulan langileak atxikiko dira eta gutxienez aipatu ordutegia edo bere egunean San Markoko Mankomunitateak zehaztutakoa bete beharko dute.

San Markoko Mankomunitateak ordutegia aldatzeko eskubidea gordetzen du, kalte-ordainerako edo kontratistak kostua jasotzeko eskubiderik izan gabe, bitarteko erantsirik ez dagoen neurrian.

Mankomunitateak berak industria-poligonoetan eskaintzen duen bilketako ibilgailuei eta mankomunitateko partaide diren udaletako ibilgailuei izan ezik, ez zaie inoiz utziko sartzen erabiltzaileei San Markoko Mankomunitateak zehaztua duen ordutegitik kanpo.

Ahal duen neurrian, esleipendunak, ibilgailuak sartzen direnean eta irteten direnean ere bai, partikula solidoak eta hautsa igortzea saihestuko du. Ahalegin berdina egingo du zamalanetan

eta hondakinak zabaltzen dituenean. Era berean, aldizka deskarga-guneetarako sarbideak ureztatzeari ekingo zaio.

Isurtzeko ahalik eta gainazal txikiena (gutxi gorabehera 10.000 m^2) irekia mantenduko da eta gainerakoa estaldura-materialez behar bezala estalia egongo da.

Une oro, adibidez kontrako baldintza meteorologikoak direla-eta, hondakinak isurketa-gunetik kanpo ez sakabanatzeko beharrezko neurriak ezarriko dira. Ohiz kanpoko arrazoiengatik, hondakinak isurketa-gunetik kanpo sakabanatzen badira, esleipendunak horiek berehala jasotzeari ekin beharko dio.

Esleipendunak betiere nahikoa langileak, beharrezkoak eta gaituak, izango ditu zerbitzua behar bezala eskaintzeko. Ildo horri eutsiz, lanera ez-agertzeak, oporraldiak, etab. direla-eta, horiek guztiak estaltzeko langileak aurrez ikusiak izango ditu. Horretarako, Baldintza Teknikoen Agiri honek eta aurkeztutako eskaintzak deskribatutako gidalerroak eta zehaztapenak kontuan hartuko dira.

Eskaintzaileak hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan isurketa-zerbitzua betetzeko eta instalazioen funtzionamendu zuzena ziurtatzeko, giza baliabideak eta bitarteko materialak eskura jarriko ditu.

Kontratistak eskaintzan honakoak atxiki eta proposatuko ditu: baskulan langileak antolatzeko modua, horretarako pertsonen kopurua, lan-ordutegiak, etab. Era berean, hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxka kudeatzeko pertsonen kopurua proposatuko du, horien ordutegia eta programatutako txandak barne.

Hondakinetarako gelaxka irekia dagoenean, gutxienez pertsona bat egongo da, gaitasun eta prestakuntza nahikoaz hornitua, baskula kudeatu eta sarrerak kontrolatzeko, plantaren jarduera-orduetan hondakinak deskargatu nahi dituzten erabiltzaileen jarduera negatiboki ez eragozteaz gain.

Kontratistak ez ditu inoiz baimendu gabeko isurketak egingo, ezta baimendu ere. Ildo horri eutsiz, San Markoko Mankomunitateak zigorrak jar ditzake, arau-hauste oso larria izanik. San Markoko Mankomunitateak erabiltzaileei beren isurketak fakturatuko dizkie, beraz, esleipendunak egunero San Markoko Mankomunitateko zerbitzu teknikoei jakinaraziko dizkie sarrerak, isurketak, tonak, hondakinaren titulartasuna, plantan sartu diren ibilgailuak eta San Markoko Mankomunitateak behar edo zehazten dituen informazio-datu edo –formatuak.

<u>Kontratistak eskuratu beharreko informazioa</u>

Kontratistak San Markoko Mankomunitateari honako informazioa bidaliko dio euskarri informatikoan adierazitako aldizkakotasunarekin.

Txosten bakoitzaren edukiak San Markoko Mankomunitateak edozein unetan alda ditzake.

Formatu telematikoan fitxategi kronologikoa izan beharko da eta ordena kronologikoari jarraiki, ondorengoak azalduko dira: hondakinen kopurua, izaera, jatorria, jomuga eta tratamenduaren metodoa eta, bidezkoa denean, garraio-bitartekoa eta onartu nahiz kudeatutako hondakinen bilketa-maiztasuna inskribatuko dira. Bien bitartean, atzera botatako hondakinei buruz hurrengoak jasoko dira: kopurua, atzera bota den hondakinaren enpresa ekoizlea, atzera botatzeko arrazoia, atzera botatako hondakinaren azken jomuga eta bestelako gorabeherak. Fitxategi kronologikoan hondakinen ekoizpen- eta kudeaketa-eragiketen dokumentuzko ziurtapenean dagoen informazioa erantsiko da.

Era berean, erregistro bat izango da, kudeatutako hondakinen jomuga eta kopurua zehazteko eta kudeaketa-bidea espezifikatuko da.

a) Berehalako informazioa

Gorabehera larriak, zerbitzua eskaintzen sortutakoak, eta beren arrazoiak San Markoko Mankomunitateari idatziz jakinaraziko zaizkio sortzen diren egun berean. Gorabehera oso larritzat ondorengoak jotzen dira:

– Justifikatuak ez badaude, kontratuaren administrazio-baldintzei buruzko agiriaren arabera, arau-hauste larri edo oso larritzat jo daitezkeen guztiak.

– Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan botatzeko gaituak ez dauden hondakinak egotea.

- Zerbitzua eskaintzean sor daitezkeen gorabeherak, administrazio emailearen edo zerbitzuan sartuak dauden tokikoen ondare-erantzukizuna eragin badezakete, hala nola kalteak pertsonei eta ondasunei, etab. Aseguru-etxeari egindako jakinarazpenaren kopia bidali beharko da 48 orduko epean.

b) Hileko txostena

Kontratistak San Markoko Mankomunitateari hilabete bakoitzaren lehenengo 5 egunetan txosten bat aurkeztu beharko dio eta aurreko hilabetean eskainitako zerbitzuen zerrenda izango du, gutxienez honako datuekin:

– Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan kudeatutako hondakinak, horiei buruzko informazio guztiarekin: data, jatorria, hondakinaren LER kodea, ibilgailua, pertsona eta enpresa, kopurua, etab.

– Transferentzia-estazioan kudeatutako hileko kopuruen laburpen-koadroa, jatorria, LER kodea, etab. adieraziz.

– Atxikitako langileak eta bitartekoak.

– Instalazioetan nahiz ekipoetan egindako mantentze-lanak eta hurrengo hilabeterako aurreikuspena.

– Zerbitzua eskaintzen ari den bitartean egunero sortutako gorabeherak eta anomaliak. Arrazoiak azalduko dira.

– Egindako ohiz kanpoko zerbitzuak eta hurrengo hilabeterako aurrez ikusiak daudenak.

– Hondakinen eta ekoizleen arabera hileko sarreren kalkulu-orria, tasak fakturatzeko. Xede horrez, San Markoko Mankomunitateak eskuratutako eredua kontuan hartuko da.

c) Urteko txostena (inbentarioa)

Urte bakoitzaren urtarrilean aurreko urtean zerbitzua eskaintzeari buruzko laburpena entregatuko da eta hurrengoak adieraziko dira:

– Instalazioetan kudeatutako kopuruen laburpena, LER kodea eta ekoizlea aipatuz, horiei buruzko informazioarekin.

– Atxikitako langileak eta bitartekoak.

- Egindako mantentze-lanen eta instalazioaren egoeraren alderdirik aipagarrienak.
- Zerbitzua eskaintzean gertatutako gorabeherak eta anomaliak.
- Zerbitzua behar bezala eskaintzeko iradokizunak, etab.

4. 4.- KOKAGUNEAREN EGOERA IKUSKATZEA, ZAINTZA ETA MANTENTZE-LAN PREBENTIBOA NAHIZ ZUZENTZAILEA.

Ustiapen eta mantentze-lan prebentibo nahiz zuzentzailerako eskuliburua

Esleipendunak une bakoitzean indarrean dagoen Aizmendiko zabortegiaren ustiapen-plana onartu beharko du.

Mantentze-lan prebentiboaren planean ikuskaritza-, kontrol- eta mantentze-eragiketen multzoa sartzen da, instalazioen egoera ona bermatzeko. Prebentzio-neurriak (ikuskaritzak, garbiketak, konponketak, etab.) barne ditu, horiek segurtasuna areagotzeko eta akatsen aukerak murrizteko badira.

Kontratistak ikuskaritza-, kontrol- eta mantentze-plana onartu beharko du. Horretan, proposatutako zeregin bakoitzerako aldizkakotasuna xedatzen da. Nolanahi ere, gutxienez, honakoak aurrez ikusi beharko ditu: ezpondetan lur-irristatzeak eta inausketak, terrazen gainazaletan zeharkako pitzadurak, beste puntuekiko betetze-ardatza gehiegiz zapaltzea, ustekabez lixibiatua ateratzea, estaldura-geruzen bitartez fumarolak agertzea, kanalizazioak, arekak eta kutxatilak mantentzea. Horiek guztiak kontuan hartuta jardungo da eta neurri egokiak hartuko dira.

Era berean, mantentze-lanen berariazko lanei erreparatuko zaie, besteak beste, aldizka belarra moztea, sastrakak dituzten guneak garbitzea, bereziki, oina eta zabortegiaren hirugarren bermaraino, areketatik eta ingurunetik sastrakak kentzea, mugak garbitzea, zuhaitz- eta zuhaixka-espezieen adarrak kimatzea eta espezie exotiko mederatzaileak (hala nola panpa-lezka (*Cortaderia selloana*), tximeleten zuhaixka (*Buddelia davidii*) eta *Renutria janponica*) kontrolatu eta errotik ateratzea. Gutxienez urtean bitan moztuko da belarra eta sastrakak kenduko dira, bata, udaberriaren erdialdean eta, bestea, udaren erdialdean edo amaieran. Landare menderatzaileei dagokienez, enpresa adituak urtean behin gutxienez jarduera gauzatu beharko du.

Seinaleen kokapen egokia eta egokitasuna ikusiz urtean behin berraztertuko da. Halaber, seinale berriak instalatu behar al diren egiaztatuko da.

Mantentze-lanak eta egindako eragiketen emaitzak dokumentazio grafikoarekin batera erregistratuko dira. Aurrekoari eutsiz, prebentziozko mantentze-lanei buruzko protokoloak eranskinean ageri dira.

Era berean, mantentze-lanen plana erregistratzeko eredua aurkeztu beharko du eta zehatz-mehatz adieraziko dira azterketak nahiz ordezkapenak eta konponketak.

Hilero San Markoko Mankomunitateari argazki-erreportajea bidaliko zaio, hilabetean zehar egindako lan guztiekin. Hala, aldez aurretiko egoera eta lana egin ostean amaierako egoera azalduz, alderaketa-argazkiak izango dira. Erreportajearekin batera, hileko parte xumea erantsiko da.

Urtero, ekitaldia ixten denean, San Markoko Mankomunitateari azkeneko txostena bidaliko zaio eta dokumentuz nahiz grafikoki denboraldi horretan gauzatutako lan guztiak jasoko dira. Txosten berean, egindako jardueren ondoriozko hondakinak zenbatuko dira eta horien

kudeaketaren ebidentziak erantsi ere bai. Halaber, txostenak atal berezia izango du gorabeherak azaltzeko. Azkenik, hurrengo urtean egin beharreko lanen proposamena ageriko da. Hala eta guztiz ere, txostenaren azkeneko edukia aldez aurretik San Markoko Mankomunitatearekin adostuko da.

Zabortegian ingurumen-zaintzaren programari dagokion esparruan, kanpoko erakundeek laginak hartu eta ikuskaritzak egin behar dituztenean, esleipendunak erraztasunak emango ditu eta hondakinak karakterizatzeko xede horrez Mankomunitateak kontratatzen dituen enpresekin lankidetzan jardungo du.

Inguruaren itxitura

Kontratista instalazioak zaintzeaz eta inguruaren itxitura mantentzeaz arduratuko da. Itxiturari dagokionez, ikuskaritza eta mantentze-lan prebentibo/zuzentzaileari buruzko plana aurkeztuko du eta astean behin azterketa egitea sartuko da.

Hilero San Markoko Mankomunitateari argazki-erreportajea bidaliko zaio hilean burutu diren inguruaren itxiturari buruzko lan guztiekin. Aldez aurretiko eta lanak egin osteko egoerarekin alderaketa-argazkiak azalduko dira. Erreportajearekin batera hileko parte xumea erantsiko da.

Urtero, ekitaldia ixtean, San Markoko Mankomunitateari azkeneko txostena bidaliko zaio eta dokumentuz nahiz grafikoki aipatu denboraldian inguruneare itxituran burututako lan guztiak adieraziko dira.

Erabiltzaileari arreta eskaintzeko ordutegitik kanpo, kontratistak San Markoko Mankomunitateari lehiaketa honetarako aurkeztu behar duen eskaintzan funtzionamenduari eta zaintzari buruzko proposamena zehaztuko dio. Helburua instalazioen segurtasuna bermatzea eta instalazioetan kontrolik gabeko isurketak egiteko edo lapurretak gauzatzeko hirugarren pertsonak ez sartzea da. Kontratistaren kargura, kontura eta bere erantzukizunpean izango dira lapurreten edo hirugarren pertsonen ekintzen ondorioz sortutako kalteak, horiek kaltetzen badituzte.

Halaber, kontratistak zabortegian instalatua dagoen alarmen sistemari lotutako kostuak bere gain hartuko ditu. Esleipendunak San Markoko Mankomunitateari instalazioetan eragiten duen edozein gorabehera jakinaraziko dio.

Kontratistaren kontura dira ekintza bandalikoetan sortutako kalte guztiak, prebentziozko neurriak ezarriak ez baditu.

Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkaren oinarriari dagokion zigiluan prebentziozko mantentze-lanak

Esleipendunak gutxienez hurrengo neurri operatiboak hartu beharko ditu:

- Uraren infiltrazio-azalerak murrizteko estaldura partzialak.
- Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan hondakinak isurtzen ari diren bitartean, arreta berezia jarriko zaio makineriari, eremuaren hormatan babes geoehunak eta legarraren geruza ez kaltetzeko.
- Gutxienez urtean bitan berriz landatutako guneak mantentzea; bertan sartuak daude belarra moztea eta sastrakak kentzea, landutako espezieak ez hazi eta sustraiek zigilu-sistema ez kaltetzeko (ikusi paisaia integratzeari buruzko atala).

Horren egoera egiaztatzeko kontrol-neurrien artean honakoak ageri dira:

- Hamabostean behin isurketa-eremua ikuskatzea.
- Hamabostean behin ikuskatzea, izan daitezkeen iturburuak antzemateko.

- Hilean behin zona zigilatuen landaretzaren egoera ikuskatzea.

Lan horiek erregistratuak geldituko dira, lanak eta eragiketen emaitzak idatziz jasoak dituen dokumentua izateko.

Lixibiatuen eta gainazaleko uren drainatze-sarearen prebentziozko mantentze-lanak

Drainatze-sareen egoera ona ziurtatzeko, esleipendunak gutxienez hurrengo neurri operatiboak hartu beharko ditu eta ondorengo kontrolak burutu ere bai horien egoera egiaztatzeko:

- Egunero drainatze arekak kontrolatzea.
- Gutxienez hilean behingo aldizkakotasunarekin drainatze-sarea (kanalak, kutxatilak, etab.) ikuskatzea. Udazkenean biziagotu egingo da, hosto gehiago erortzen baitira eta kanalen, hodien eta kutxatilen funtzionamendu onean, baita horiekin zerikusia duten kontroletan (adibidez emari-neurgailuan) ere eragin baitezakete.
- Eurite eta haize gogorren ondoren, ikuskaritza puntuala.
- Gutxienez urtean bitan, kanalak eta kutxatilak garbitzea.

Drainatze-sarea ikuskatzean, honakoak kontuan hartuko dira: batetik, uraren zirkulazio askea oztopatzen duten materialak agertzea eta, bestetik, pitzadurak ala hausturak izatea edo drainatze-junturak gehiegi bereiziak egotea, horiekin guztiekin iragazgaiztasuna galtzen bada. Izan ere, esleipendunak kontratuaren esparruan zuzendu beharko du.

Lan horiek erregistratuak geldituko dira, lanak eta eragiketen emaitzak idatziz jasoak dituen dokumentua izateko.

Gasa ateratzea

Aizmendiko zabortegian gasa ateratzeko sistema 30 putzuk osatzen duten ateratze-sare bertikalean datza. Putzuak azalera guztian zehar homogeneoki banatuak daude. Aipatu putzuek gasak aske igortzen dituzte atmosferara, ateratze bortxaturik gabe, metanoaren kontzentrazioa % 5etik beherakoa baita.

Esleipendunak gutxienez honako mantentze-lanak egin beharko ditu egunero: tximiniak landan aztertu eta mantentzea, baita fumarolak edota finkapenak berraztertzea ere.

Gainera, hileko aldizkakotasunez, tximinien barrualdean zabortegiko gasa neurtu beharko da eta hurrengo parametroei erreparatuko zaie: CO, CO_2, O_2, H_2S, CH_4 eta tenperaturari. Xede horrez, biogasa aztertzeko aparatuez hornitua egongo da.

Halabeharrez eta aldizka egiaztatzeko, landan biogasaren analisi-aparatua sei hilez behin kalibratuko dute herri-administrazio eskudunek baimendutako zerbitzu edo erakundeek eta San Markoko Mankomunitateari egindako egiaztapena ziurtatzen duen ziurtagiria bidaliko zaio.

Gasa ateratzeko instalazioei dagokienez, mantentze-lan prebentibo eta zuzentzaile egokirako kontratistak bere eskaintzan beharrezkotzat jotzen dituen mantentze-eragiketak deskribatu beharko ditu: helburua, norainokoa eta aldizkakotasuna. Proposatutako lanen norainokoa gutxienez arestian deskribatu dena izango da. Esleipenduna une oro zabortegian gasa ateratzeko sistema behar bezala funtzionatzez arduratuko da.

Gasa ateratzeko sistematik lortutako datu guztiak xede horrez diseinatuko den datu-basean erregistratuko dira. Datu-base horri esker, hainbat hilabetetan kontrol-puntu desberdinetan eta parametro ezberdinen artean lortu diren emaitzak alderatu ahal izango dira, baita datuak

alderatu eta parametro desberdinak abiapuntutzat hartuta, eboluzioari buruzko grafikoak eta alderatze-grafikoak egin ere, etab.

Modu berean, esleipendunak honako dokumentuak idatziko ditu:

a). Hileko txostenak eta urteko laburpen-txostena zabortegian gasa ateratzeari buruz.

b) Tximinien banaketari dagokionez, egungo planoa eta aldaketen erregistro zehatza, putzu bakoitzaren banakako eboluzioa jarraitu ahal izateko. Betiere zabortegian gasa ateratzeko sare pasiboaren azkeneko eguneratzea izango da eskura eta San Markoko Mankomunitateari bidaliko zaio hileko txostenaren barruan. Bai planoaren formatua, baita erregistroa ere, herri-administrazioan erabiltzen diren ohiko formatuak izango dira.

Kontratuaren indarraldian ingurumen-legeria berria edo nahitaezko kudeaketa-irizpideak indarrean sartuko balira, esleipendunak kudeaketa-prozedura moldatu beharko luke, eskakizun berriak betetzeko. Dena den, San Markoko Mankomunitateak aldez aurretik onartu beharko du eta bera kargura izango dira gastuak.

Bideak

Kontratistak bere eskaintza ekonomikoan bideak (asfaltatuak eta ustiapen-bideak, harrobiko materialarekin egindakoak) mantendu eta kontserbatzeko plana aurkeztuko du. Bide mota bakoitzeko prezio unitario bana zehaztuko da.

Eskaintza ekonomikoa egiteko, hurrengoak onartuko dira: asfaltatu gabe, 500 metro bide moldatzea eta 100 metroko distantzia kontuan hartzea zati asfaltaturako. Alderdi hori bakarrik Mankomunitateak baimendu ondoren ordainduko da eta kasu bakoitzean egiaz gauzatutako distantziei erreparatuko zaie.

Baskula

Sarrerak eta pisuak kontrolatzeko sistema nahitaez zabortegiko baskulan pisatze bikoitzaren sistema erabiliz burutuko da, hau da, kamioia sartzen denean, deskargatu baino lehen, pisatuko da eta, ondoren, irten baino lehen, berriz pisatuko da, gehieneko pisuaren eta tararen arteko ezberdintasuna kalkulatzeko. Hala, pisu garbia lortuko da. Modu horretan, erabiltzaileari, enpresa kudeatzaileari eta San Markoko Mankomunitateari pisuak errealitatearekin bat datozela ziurtatuko zaie eta, bide batez, guztientzat fidagarritasuna ziurtatuko da eta jardueraren ondorioz sortutako fakturazioak finkatuko dira.

Pisatze bikoitzaren sistema bera erabiliko da hondakin ez-arriskutsuei balioa emateko jomugetara, hondakin arriskutsuen kudeatzailearengana edo beste edozein azpiegituratara zabortegiko instalazioetatik irteten diren hondakin guztiekin.

Pisatze-baskularen kalibraketak eta mantentze-eragiketak estazioaren zerbitzua eskaintzeko ordutegitik kanpo gauzatuko dira eta 1999ko apirilaren 27ko Aginduak, egiaztapen-faseetan, konpondu edo aldatu ondoren eta aldizkako ziurtapenetan funtzionamendu automatikoa ez duten pisatze-tresnen gainean Estatutako kontrol metrologikoa arautzen duenak, xedatutakoa beteko da. Eragiketa horien ondoriozko gastuak esleipendunaren kontura izango dira.

Nahitaez eta aldizkako egiaztapenaren modura, bi urtez behin kalibraketa burutuko dute herri-administrazio eskudunek baimendutako zerbitzuek edo erakundeek eta egiaztapena egina dagoela frogatzen duen ziurtagiria egingo dute. Horrez gain, zigiluak jarriko dituzte. Azkeneko kalibraketa 2016ko ekainean burutu da.

Aurrekoaren harira, baskula konpondu edo aldatu behar bada, pertsonak edo erakundeak konpontzaile bezala erregistratua egon beharko du Kontrol Metrologikoaren erregistroan, irailaren 11ko 1618/1985 Errege Dekretuak xedatutakoarekin bat.

Baskularen edukitzaileak konponketekin liburu-erregistroa izango du; orriak behar bezala zenbatuak eta herri-administrazio eskudunak zigilatuak nahiz gaituak egongo dira, bertan pisatze-tresna konpondu edo aldatzean konpontzaileek gauzatutako jarduera guztiak idazteko.

Konpondu edo aldatu ondorengo egiaztapenak aldizkako ziurtapenerako ondorioak izango ditu baliozkotasunaren epeari dagokionez.

Gainera, sistemak barneko memorian pisaketak erregistratuko ditu, zerrendak atera eta datuak sistema informatizatura iraultzeko. Egunero esleipendunak, San Markoko Mankomunitateak zehaztutako moduan, sarrera- eta irteera-eragiketa guztien berri emango dio: tona hondakin, ibilgailuak eta erabiltzaileak, San Markoko zabortegian garatu diren jardueratan jardun badute.

Emari-neurgailu elektromagnetikoa eta ultrasoinuen bidezko maila-neurgailua

Hondakin ez-arriskutsuetarako gelaxkan sortutako lixibiatuak bilketa-sistemaren bitartez jasotzen dira isurketa-eremuaren barrualdean eta kontrol-kutxatilaraino bideratzen dira. Hori harbetaren uretatik behera kokatua dago, hain zuzen ere, hondakinen gunetik kanpo. Kontrol-kutxatilatik abiatuta, inguruko bidearen amaieran dagoen zorrotenerantz eramaten dira. Hori zabortegiko beheko aldeko ezpondan ageri da eta bertan emari-neurgailu elektromagnetikoa kokatzen da. Abiapuntutzat hori hartuta, inerteen zabortegiko drainatze-saretik datozen lixibiatuak irteteraino ultrasoinuen bidezko maila-neurgailua dago. Puntu horretan nahasten dira.

Oro har, esleipendunak ondorengo zerbitzuak eskainiko ditu nahitaez:

Instalazioetako ekipo guztiak eta emari-neurgailuekiko elementu osagarriak nahiz erantsiak egoera ezin hobean kontserbatu eta mantentzea. Eskaintzaileek mantentze-lanen planean definituko dituzte instalazioen funtzionamendu ezin hobea bermatzeko, proposatzen dituzten zereginak, horretarako bitartekoak eta maiztasuna. Era berean, mantentze-lanen plana erregistratzeko eredua aurkeztuko dute eta zehatz-mehatz adieraziko dira azterketak eta ordezkapenak nahiz konponketak.

Datuen erregistroa ez dela galtzen bermatu beharko da.

Egin beharreko lanetarako prozedura eta argibide operatiboak gauzatzea. Prozedurak eta argibideak San Markoko Mankomunitateari aurkeztuko zaizkio, Eragiketen eta Mantentze Lanen Eskuliburuarekin batera.

Emari-neurgailua eta maila-neurgailua osatzen duten instalazio eta gailu guztiak garbitzea.

Gutxienez hileko aldizkakotasunez emariaren datuak irauli eta tratatu beharko dira. Ekipo horien funtzionamendua eta mantentze-lanak, ingurumena kontrolatzeko instalatuak dauden gainerako ekipokoenetakoak bezala, esleipendunaren erantzukizuna dira.

Estazio meteorologikoa

Esleipendunak egoera ezin hobean kontserbatu eta mantendu beharko ditu estazio meteorologikoaren elementu eta ekipo guztiak. Eskaintzaileak mantentze-lanei buruzko planean definituko ditu instalazioaren funtzionamendu ezin hobea bermatzeko proposatzen dituen zereginak, horretarako bitartekoak eta maiztasuna. Era berean, mantentze-lanei buruzko plana erregistratzeko eredua zehaztuko du eta horretan zehatz-mehatz islatuko dira azterketak nahiz ordezkapenak eta konponketak.

Esleipendunak datu meteorologikoak hileko aldizkakotasunez deskargatu beharko ditu.

Zeregin horiek erregistratuak geldituko dira, egindako lanak eta eragiketen emaitzak idatziz jasoak dituen dokumentua izateko.

Produktu kimikoak biltegiratzeko eta manipulatzeko neurriak

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru iragazgaitzak izango dituzte. Egoera fisiko likido edo oretsuarengatik edo inpregnazio-mailarengatik isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, ontziak edo bilketa-sistema egokiak izango dituzte, isuriak egonez gero, kanpoaldera ez ateratzeko.

A gasolioaren kasuan, 3.000 litroko edukierako horma bikoitzeko metalezko tanga da eta bulegoen eraikinaren atzeko aldean nahiz makineria mantentzeko eremuan kokatuta dago. Esleipendunak kontratuaren lehenengo hiru hilabetetan tanga hormigoizko zolata iragazgaitzez hornitzeari ekin beharko dio.

Esleipendunak bere eskaintzan ontzien zamalan-maniobren eragiketak kontrolatzeko protokolo edo prozedura dokumentatua proposatu beharko du. Ildo horri jarraiki, isuriak, ihesak edo isurketa txikiak direla-eta, lurzorura eragin-mota guztiak saihestuko dira.

Eskaintzaileak larrialdiaren kasuan berehala eta eraginkortasunez jarduteko material guztien kopuru nahikoa izango du: beharrezkoa balitz, beste ontzi batzuetan sartzeko edukiontzien erreserba, izan daitezkeen isuriak eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasun-ontziak, hesiak eta seinaleztapen-elementuak eragindako guneak isolatzeko eta dagozkion babes-ekipo pertsonalak.

Esleipendunaren aldetik gutxieneko prebentziozko kontrola eta mantentze-lanak honakoak izango dira:

- Biltegiratutako substantzien urteko inbentarioa eta beren segurtasun-fitxak, baita arestian aipatu araudia betetzen dutela berraztertzen dutenak ere.
- Gasolioa biltegiratzeari dagokionez, araubidezko berraztertzeen egoerari buruzko urteko azterketa.
- Biltegiratze-guneen hileko azterketa. Honakoak berraztertuko dira:
  - ✓ Korridoreen egoera: zirkulazio-korridoreak oztoporik gabe eta seinaleztatuak mantentzea eta produktu guztietara aske iristeko aukera izatea.
  - ✓ Isurien kontrako neurrien egoera: isurien kontratu neurriak hurbil jartzea, isurien kontrako neurriak kontatu eta horiez hornitzea, birziklatzeko edukiontziak kontatu eta horiez hornitzea, produktuak behar bezala manipulatzeko BBEak kontatu eta horiez hornitzea.
  - ✓ Biltegiratzearen egoera: ontzi guztiak egoera onean eta itxiak daudela kontrolatzea.

- ✓ Garbiketa: instalazioak garbiak daudela kontrolatzea.
- Instalazioen hileko garbiketak.
- Isuriak konpontzea eta instalazioak puntualki garbitzea, beharrezkoa bada.
- Larrialdiko egoeraren aurrean jardutean (besteak beste, poluitzaileak isurtzea eta partikularrari jakinarazi eta prestatzea), langile guztiak urtero prestatzea.

Zereginak erregistratuak geldituko dira, egindako lanak eta eragiketen emaitzak idatziz jasoak dituen dokumentua izateko.

Jardueran sortzen diren hondakin arriskutsuei dagokienez, gehienek makineria mantentzearekin zerikusia dute eta behar bezala biltegiratuko dira, baita kudeatzaile baimenduei entregatu ere, indarreko sektoreko araudia betez. Hondakin arriskutsuen kudeaketa dokumentuen bidez egiaztatu beharko zaio San Markoko Mankomunitateari.

Jarduera osagarrietarako kolektoreen eta hobien sarean mantentze-lanak.

Lixibiatuen eta gainazaleko uren drainatze-sareez gain, zabortegiak hondakin-ur sanitarioen sarea eta ibilgailuen gurpilak garbitzeko instalazioa ditu.

Esleipendunak hurrengo prebentziozko mantentze-lanak eta kontrola burutu beharko ditu:

- Ur sanitarioen sistema urtean behin ikuskatzea.
- Ur sanitarioen hobia hiru hilez behin eta hileko ikuskapenak adierazten duenean hustea.
- Gurpilak garbitzeko sistemari dagokion instalazioen egoera hamabostean behin kontrolatzea, ibilgailuak garbitzeko orduan eraginkortasuna kontrolatzeko eta dekantazio-ontzian isuriak zehazteko. Hamabostean behingo ikuskapena bereziki gainezkabidearen buxadurak identifikatzera bideratuta dago.
- Gurpilak garbitzeko sisteman ibilgailuak garbitzearen ondorioz sortutako lohiak gurpilen garbiketa-sistemaren hondotik atera beharko dira saneamendu-kamioiez baliaturik bi hilez behin.

Lan horiek erregistratuak gelditu ko dira, zereginak idatziz jasoak dituen dokumentua izateko.

Gasen detektagailuak

Esleipendunak instalatuak dauden metano-detektagailuak egoera ezin hobean kontserbatu eta mantendu beharko ditu eta berriak jarri ere bai, bizi erabilgarria gainditzen dutenean.

Lau metano detektagailu instalatuak daude 2015az gero eta horien bizi erabilgarria lau urtekoa da.

Suteen detektagailuak

Esleipendunak bere eskaintzan suteak prebenitzeko protokoloa aurkeztu beharko du.

Gainera, zabortegiko gune eta lokal ezberdinetan su-itzalgailuen mantentze-lanei, beharrezkoa balitz, ordezkapenari edota berriak erosteari buruzko kostua bere gain hartu beharko du.

Bektore biologikoak kontrolatzea: arratoi-garbiketa/desinfekzioa

Kontratistak zabortegiaren instalazioetan bektore biologikoak kontrolatuko ditu eta, horretarako, Osasun eta Kontsumo Ministerioko Osasun Publikorako Zuzendaritza Nagusiaren bioziden erregistro ofizialean agertzen diren produktuez baliatu beharko du.

Erabileraren aldizkakotasunari dagokionez, beharrezko gutxienekora murrizteko moduan aplikatuko da.

Hala eta guztiz ere, kontratistak Azimendiko zabortegiaren instalazioekiko bizilagun hurbilenek eskatzen dizkioten biozidak eskuratu beharko ditu, baina aldez aurretik ezinbestez zerbitzu teknikoei kontsultatuko zaie eta, hori ezinezkoa izan ezean, bere kontura izango da aipatu etxebizitzetan bektore biologikoak kontrolatzea. Kontrolatzeko, hala banatutako kopuruak erregistratuak geldituko dira.

Produktu horiek erabiltzen hasi baino lehen, San Markoko Mankomunitateari erabili nahi diren biosanitarioen segurtasun fitxa eta fitxa teknikoa bidaliko zaizkio. Era berean, zerbitzu biozidez arduratuko den enpresa jakinaraziko da.

Bestelakoak

Kontratistak berehala eta idatziz jakinaraziko dizkio San Markoko Mankomunitateari zabortegian gertatzen diren gorabehera guztiak, bizilagunek edo edozein enpresa, organo ofizial edota elkartek azaldutako kexez gain. Eskaintzaileek beren eskaintzan halako gertaeren aurrean jarduteko protokolo zehatza aurkeztuko dute.

Eskaintzaileek beren eskaintzetan ATEX arautegiaren aplikazioa kontuan hartu beharko dute.

Kontratistaren erantzukizuna da zentroan seinaleztapenaren mantentze-lan eta aldaketa txikiak. Edozein aldaketa esangarri behar izanez gero, Mankomunitatearen erantzukizunekoa izango da.

Zentroan azterketa topografiko guztiak Mankomunitatearen kargura izango dira, kontratistaren kudeaketan arduragabekeriaren ondorioz beharrezkoak direnean izan ezik.

Aizmendiko zabortegira sarbide guztiak kontrolatzea kontratistaren erantzukizuna da eta, horren harira, indarreko legeria betetzen dela zaindu beharko dute. Aurrekoari eutsiz:

- Arriskuak prebenitzeari buruzko arauen informazio zehatza entregatuko zaie zentrora sartzeko baimena duten pertsona guztiei eta idatziz horien adostasuna jasoko da.

- Une oro egiazko denboran zentroan dauden pertsonen erregistroa, behar bezala identifikatu ostean, mantenduko da, langileena barne. Erregistroa eskura izango dute Mankomunitatean langile baimenduek 24/24ko erabilgarritasunarekin. Dena den, hori guztia datu pertsonalak babestearen eremuan indarreko legeria betez egingo da.

- Agintari aginpidedunei eta Mankomunitateari instalazioetan baimendu gabeko edozein sarreraren berri emango zaie.

- Zentroko funtzionamendu-arauak, motorrezko ibilgailuetan abiadura-mugak barne, errespetatzen ez dituzten pertsona guztiei ohartaraziko zaie. Zentroko segurtasunari serioski eragiten dion araua betetzen ez bada, kontratista arduraduna kanporatzez arduratuko da eta, xede horrez, zuzenbidean egokiak diren bitartekoak erabiliko ditu. Behin baino gehiagotan bestelako edozein arau betetzen ez bada, kontratistak idatziz jakinaraziko dio Mankomunitateari, egokitzat jotzen dituen neurri zuzentzaileak zehazteko.

Eskaintzaileak bere eskaintzan argi eta garbi zehaztu beharko ditu proposatzen dituen zaintza- eta prebentzio-sistema aplikagarriak, bai kanpotarrak antzemateko, bai bestelako gertaera larrirako, bai suteetarako eta abarrerako.

- **III. TITULUA. LANGILEAK**

LANGILEAK.

Kontratistak betiere Baldintza Teknikoen Agiri honetan eta aurkeztutako eskaintzan deskribatutako gidalerro eta zehaztapenekin bat, zerbitzua eskaintzeko langileak izango ditu.

Zerbitzuaren buru eta arduradun goren bezala pertsona bat jarriko da eta kontrataren alderdi guztietan erabakiak hartzeko nahikoa gaitasunez hornituko zaio. Pertsonak zuzeneko harremana izango du Mankomunitateko Zerbitzu Teknikoekin.

Kontratistak une oro kontratuaren xede den zerbitzua eraginkortasunez gauzatzen dela ziurtatzeko eta izan daitezkeen gertaerak (besteak beste, gaixotasun edo istripuarengatik bajak, sindikatu-lanak, oporraldiak eta behar bezala justifikatutako bestelako arrazoiak, baita ustekabeko bajak eta lanera ez agertzeak ere) estaltzeko giza baliabideak izango ditu. Langileak lanera agertzen ez badira edo baja hartzen badute, kontratistak berehala estali beharko ditu.

Arestian azaldutakoa kontuan hartuta, eskaintzaileek beren proposamenetan kontratatutako zerbitzuak eraginkortasunez gauzatzeko langileen aurreikuspen-proposamena aurkeztu beharko dute. Gainera, langileak ordezkatzeko planez hornituak egongo dira. Langileen aurreikuspenak langile bakoitzaren kategoria eta zereginaren eremua zehaztuko du. Ildo horri eutsiz, atal berezian zehatz-mehatz adieraziko da aurreko atalean izandako gertaeren aurrean jarduteko modua.

- **IV. TITULUA. IBILGAILUAK, MAKINERIA ETA INSTALAZIOAK**

1. 9.- IBILGAILUAK ETA MAKINERIA.

Eskaintzaileek agiri honen hainbat ataletan zehaztu diren ibilgailuak eta makineria, Mankomunitatearen jabetzakoak, izango dituzte eskura, instalazioen barruan erabiltzeko. Helburua zerbitzuaren xede diren zereginen zati bat burutzea da.

Eskaintzaileak zerbitzua hobe emateko beste edozein ekipo edo ibilgailu erabiltzea beharrezkotzat jotzen badu, eskaintza teknikoan sartu eta zehaztu beharko du. Mankomunitateak gehienez 18 hilabeteren buruan makineria zuzenean erosi eta kontratistaren esku jartzeko eskubidea gordetzen du.

Eskain daitekeen edozein material eskaintzaileek zehaztasun osoz deskribatuko dute eta planoak, krokisa, eskemak, argazkiak eta beharrezkotzat jotzen dituzten datuak erantsiko dituzte, ahalik eta ongien ezagutzeko. Bereziki balioetsiko dira soinuen nahiz gasen igorpenak eta kontsumoak, baita bestelako ingurumen-alderdiak ere murriztera bideratutako neurriak.

Zerbitzura bideratutako material guztiari dagokionez, esleipendunak prebentziozko mantentze-lan eta garbiketekin nahitaez plan zehatza aurkeztu beharko du eta pilatutako zerbitzu-orduen arabera maila berezien edukia adierazi ere bai. Halaber, plana gauzatzeko metodologia ageriko da. Nolanahi ere, halabeharrez zerbitzua eskaintzeko egutegi eta ordutegiarekin koordinatuko da, planean eragin dezaketen mantentze-lan zuzentzaileak alde batera utzita.

Aipatu planean garbiketa bereiziko da: instalazioko eta ibilgailuko maiztasuna, zereginari atxikitako langileak eta arduraldia. Prebentziozko mantentze-lanak instalazioko banatuko dira, mantentze-lan eta garbiketa bakoitzerako beharrezko orduen arabera. Lehen

deskribatutakoaren ondorioz, ekipoak betiere kontserbazio- eta garbiketa-egoera ezin hobean egongo dira.

Plana jarraitu ostean, enpresa esleipendunak bere unean zehazten den aldizkakotasun egokiarekin oso-osorik betetzen duela justifikazio nahikoa aurkeztu beharko du. Horretarako, ekipo bakoitzeko historia gauzatuko du hurrengo moduan banatuta: mantentze-lanaren mota, zuzentzailea eta prebentiboa, hasierako eta amaierako data nahiz eragiketaren arrazoia.

Hala eta guztiz ere, ekipoen kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera aldizka San Markoko Mankomunitateko langileek, bere laguntzaileek eta funtzioak eskuordetu ondoren, beste aditu batzuek ikuskatuko dute, mantentze-eragiketen eraginkortasuna egiaztatzeko. Hala, esleipendunak ikuskaritza-lanetarako erraztasunak emango ditu, instalazioetan eta ibilgailuetan sartzen utziko du, eskatutako datuak emango ditu eta eskatzen zaizkion kontrol-probak gauzatu ere bai. Ikuskaritza egin ostean, mantentze-lanak ez direla egiten edo urriak direla ondorioztatzen bada, esleipendunaren kargura gauzatzea edo zuzentzea agin dezake.

Zentroa osatzen duten ekipo guztiei dagokienez, esleipendunak Mankomunitatearen zerbitzu teknikoen esku historia izango du eta bereizita agertuko dira mantentze-lan motak, zuzentzaileak eta prebentiboak, eta zuzentzaileen barruan konponketa-multzoa (elektrikoa, mekanikoa, hidraulikoa, etab.), baita zeregin bakoitzaren hasierako eta amaierako data ere.

Auto-ibilgailu guztiek aldizka azterketak pasa behar badituzte, indarreko araudiaren arabera gauzatuko dira. Erakundeak egindako parteen kopia bidaliko zaie Mankomunitateko zerbitzu teknikoei azterketa egin eta gehienez hilabeteko epean.

San Markoko Mankomunitateari itzuli behar zaion makineria kontserbatzearen eginbeharra kontratistak betetzen duela bermatzeko, kontratuaren azkeneko hiru hilabeteetan ibilgailuek Ibilgailuen Azterketa Teknikoa izango dute eta beharrezkoak diren konponketak esleipendunaren kargura suertatuko dira.

Herri-bidera irteten diren ibilgailu guztiak ezin hobeki ikusiko dira eta bakarrik San Markoko Mankomunitatearen logotipo eta izenarekin identifikatuko dira. Nahitaezko segurtasun-sistemak izango dituzte, ezin hobeki ikusiko dira eta ahalik eta ongien antzemateko, baita oinezkoentzat eta ibilgailuen trafikorako arriskuak saihesteko ere seinaleztapen-sistemez hornituko dira.

Esleipendunak ibilgailuak eta makineria fabrikatzaileak eskuratutako eragiketa-eskuliburuekin bat erabiliko ditu eta betiere segurtasun-arau tekniko ofizialei eta praktika onei erreparatuz.

Atxikitako material guztia kontratuaren xede diren zerbitzuetarako erabiliko da esklusiboki; beraz, zerikusirik ez duten zerbitzuetan ezingo da inolaz erabili, San Markoko Mankomunitateak berariaz agintzen duenean izan ezik.

- **V. TITULUA. KONTROL-SISTEMAK ETA BESTELAKO XEDAPENAK**

1. KONTROL-SISTEMA

Proposatutako antolaketaren barruan, eskaintzaileek gailu arinak aurrez ikusi beharko dituzte, garaiz San Markoko Mankomunitateak behar dituen datu guztiak eskuratzeko. Horiekin, batetik, egindako lanak justifikatuko dituzte eta, bestetik, kontratatutako zerbitzuaren gainean eta zerbitzua ustiatzearekin zerikusia duen edozein alderdiri buruz bidezkoak jotzen dituen kontrolak behar bezala egin ahal izango ditu. Gailuak eta sistemak, informatikoak eta beste izaera batzuetakoak, Mankomunitateak dituenekin bateragarriak izango dira.

Gainera, esleipenduna zentroko kudeaketaren zuzendaritzaren eta Mankomunitateko zerbitzu teknikoen artean une oro komunikazio-sistema arina eta eraginkorra ziurtatzeko bitartekoez hornituko da.

- Mankomunitateak etengabe zaindu eta ikuskatuko du kontratatutako zerbitzua bere zerbitzu teknikoen bitartez. Ildo horri eutsiz, egokitzat jotzen dituzten azterketak egin ditzakete edozein unetan eta tokitan. Egindako ikuskaritzaren arabera, Mankomunitateak agindu eta argibide zehatzak eman ditzake eta kontratistak nahitaez bete beharko ditu.

Mankomunitatea gaur egun OpenBravo kode irekiko kudeaketa-plataforma erabiltzen ari da eta esleipendunak zentroan bere ekintzen kudeaketa guztia eman beharko du gehienez kontratua gauzatzen hasi eta hirugarren hilabetetik aurrera. Esleipendunak zuzenean erabiltzea (lehentasunez) edo edozein plataforma korporatibotik datuak iraultzea onartuko da. Hala ere, kontratazio-mahaiak ez du balioetsi edo erabiliko.

Gaur egun abian jarria dagoen sistema aditzera emateko eta zalantzak argitzeko, Mankomunitateak interesdun guztiei azalpena proposatuko die proposamenak aurkezteko fasea hasten denean. Xede horrez, kontratatzailearen profilean iragarriko du. Konponbidea kode irekikoa denez, esleipendunak egokitzat jotzen dituen bitartekoak erabil ditzake garatzeko eta enpresa bereziren batekin kontratatzeko beharrik ez du.

Gutxienez hurrengo informazioa jaso beharko da:

1. Funtzionatzeko behar diren hondakinen eta materialen **sarrerei** buruzko zerrenda eta zehatz-mehatz ondorengoak azalduko dira:
   - Sarreraren data eta ordua
   - Ibilgailuaren matrikula
   - Hondakinaren jatorri geografikoa eta sortzailea (IFZ/IFK)
   - Hondakinaren tipologia
   - Sarreran eta irteeran ibilgailuaren pisua
   - Garraiolaria

2. Zentrotik materialen eta hondakinen **irteerei** buruzko zerrenda eta zehatz-mehatz hurrengoak adieraziko dira:
   - Irteeraren data eta ordua
   - Ibilgailuaren matrikula

- Erakunde kudeatzailearen jomuga geografikoa eta sozietatearen izena (IFZ/IFK)
- Hondakinaren tipologia
- Sarreran eta irteeran ibilgailuaren pisua
- Garraiolaria

3. Zerbitzuan erabilitako langileen eta makineriaren laburpena

4. Denboraldian egindako materialen kontsumo guztien zehaztapena; behar teorikoak gainditzen direnean, kontsumo handiagoa sortu duen edozein anomalia adieraziko da.

5. Era berean, Mankomunitateko zerbitzu teknikoekin lankidetzan arituko da gordailu-tresnak zehazteko. Helburua agiri honetan eskatzen den informazio guztia aplikazio horretan modu zentralizatuan sartzea izango da.

Kontrol estatistikoa eta kudeaketa-kontrola gauzatzeko, proposatutako tresnek betiere Aizmendiko zabortegian balioa izan dezaketen hondakinen kopuruak kalkulatzeko aukera eman behar dute. Hiru hilez behin balantze teorikoak aztertzeari ekingo zaio.

Halaber, tresnak estandar irekiei buruzko txosten pertsonalizatuak egiteko aukera eskainiko du eta teknikariek nahiz zati batean edo oso-osorik baimendu ondoren, bestelako erakundeek deskargatu ahal izango dituzte.

B/ Zerbitzuaren zati diren bitarteko guztien inbentarioa; bertan makineria eta edukiontziak nahiz antzekoak sartuko dira, Mankomunitatearen jabetzakoak badira. Ibilgailuen kasuan, zerbitzua eskaintzean egindako mantentze-lan guztien xehetasuna sartuko da: kilometro guztiak, eta IATen erregistroa, hurrengo azterketarako datarekin. Aldi berean, indarrean dagoen aseguruaren datuak erantsiko zaizkio, ordaindu ostean, urteko ordainagiriaren kopia eskaneatua barne. Erregistroaren xehetasun guztiak Mankomunitatearentzat irisgarriak izango dira **A** puntuan adierazitako baldintza berdinetan eta lehentasunez tresna informatiko bera erabiliz.

C/ Zerbitzua erabiltzen duten guztien errolda: etengabe eguneratu beharko da, alta, baja eta aldaketen prozedurak barne. Zerbitzua eskaintzen ari den lehenengo sei (6) hilabeteren buruan erabiltzaileen errolda eguneratzeari ekingo zaio eta 15/1999 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatutakoarekin bat, sinadurak eta datuak jasoko dira. Eguneratze horren barruan, erabiltzaile guztiei SMS edo posta elektronikoaren bitartez zerbitzuaren aldaketa puntual guztien berri izateko aukera emango zaie. Hala nahi duten erabiltzaile guztientzat, kontratistak arduraz jakinaraziko dizkie sistemaren beharrak direla-eta ordutegien edo datak aldaketak gutxienez 3 lanegun lehenago, ezinbesteko egoeratan izan ezik. Halaber, erregistro horren xehetasun guztiak Mankomunitatearentzat irisgarriak izango dira aurreko puntuetako baldintza berdinetan eta lehentasunez tresna informatiko bera erabiliz.

D/ Baldintza teknikoen agiriari dagozkion gainerako ataletan zehazten diren informazioari buruzko datu eta eske guztiak.

Era berean, eta hilabete bakoitzaren lehenengo astean, kontratistak hileko txosten osoa aurkeztuko du aurreko hilean egindako lan guztiekin; nolanahi ere, bereziki aipatuko dira egoera eta gorabehera aipagarriak, hilabete horren barruan gertatu badira. Horrez gain, txostena A-B-C-D ataletan islatu diren datu guztien laburpena izango da.

Hileko txostenari instalazioan egindako sarrera guztien pisuei buruzko datuak erantsiko zaizkio.

Hileko txostena aurkeztea ezinbestekoa izango da Mankomunitateak hilabete horri dagokion hileko ziurtagiriaren ordainketa egiteko.

Kontratistak edozein unetan San Markoko Mankomunitateak eskatzen dizkion dokumentuak eta, bereziki, gizarte-segurantzari, lan-istripuei, aseguru-polizei, instalazioei eta materialari dagozkionak erakutsiko ditu. Oro har, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzaile saihestera bideratutako jarduerak ahalbidetuko ditu.

Modu berean, San Markoko Mankomunitateak eskatu ostean, esleipendunak zerbitzuarekin zerikusia duten txostenak eta azterlanak prestatu beharko ditu.

2. KALTEAK HIRUGARRENEI

Kontratua gauzatzean behar diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galeren arduraduna esleipenduna izango da. Horregatik, ingurumenaren, lanaren, segurtasun eta higienearen eta ibilgailuen trafikoaren eremuan indarreko antolamenduak eskatzen dituen aseguruak alde batera utzita edo horiekiko osagarriak, eskaintzaileek beren eskaintzetan aseguru-polizen proiektuak aurkeztu beharko dituzte eta berariaz aipatuko dira arriskuen estaldurak, primak, kalte-ordainak eta gainerako alderdiak, zerbitzuaren gorabeherei aurre egiteko sartu behar badira. Ildo horri jarraiki, Mankomunitatearen edozein erantzukizun ordezkatzaile saihestuko da.